

Funtseko elkarteak

Hasteko, esan beharra dago, hornitzaile eta bazkide-sareek, negozio-ereduetan jarduteko aukera ematen dutela. Gainera, kontuan hartu behar dugu, enpresa batek, askotariko arrazoiengatik ezar ditzakeela itunak: bere negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko...

Eragile edo jardule bakoitzaren rola zein den argi eta garbi ezartzea oso garrantzitsua da, haien garrantzia lehenetsiz. Gure enpresaren kasuan, funtsezko itunak gure artekoak dira, bakoitzak funtsezko baliabide bat edo gehiago jarriko baitugu. Hala ere, enpresako taldekide guztiek, beste baliabideak egiteko ahalmena daukagu, baina, hobeto banatuta egoteko eta gure artean liskarrak ez egoteko, erabaki dugu partaide bakoitzak baliabide bat edo bi kontrolatzea. Gainera, horrela, norbanako gaitasunak garatuko ditugu.

Elene oso trebea da ordenagailuekin zerikusia duten jardueretan, gainera, Elene eta Leire, biak diseinatzaile onak dira, beraz, diseinu pertsonalizatuak sortzeko gaitasuna daukate, baina Elene ordenagailuaz arduratuko denez, diseinuaz Leire soilik enkargatuko da, nahiz eta Eleneren laguntza izan. Ainhoak, salmentarako abilezia dauka, beraz, bera arduratuko da salmentarekin zerikusia duen edozein jarduerarekin. Eta azkenik, Carmen daukagu gure taldean; oso trebea da tailerrean, eta gure produktua ekoizteko egokiena da. Gainera, Carmen izango da gure taldea motibatzen eta koordinatzen duen pertsona.

Gure enpresarekin lan egingo duten beste negozioa, hau da, gure hornitzailea, Enpresa Santa Lucía izango da. Enpresa hori, Bilbokoa da eta gure betaurrekoak titaniozko egitura izango dutenez, enpresa honekin aliantzak sortzea onena izango dela uste dugu.

Titanioa hasieran bakarrik erabiltzea pentsatu dugu, merkea eta kalitate onekoa delako. Baina, negozioa aurrera joan ahala beste material batzuk erabiliko ditugu, adibidez, ULTEM eta azetatoa.

Kristalak, fabrikatzaile bati zuzenean erosiko genituzke hasieran, merkeagoa izango delako eta kristal hauek ez dakizkigulako ekoizten, baina ikasiz gero, denborarekin guk geuk ekoitziko genituzke.